

Kontatu nion nire familiarekin haserretu ondoren etxetik ihes egin nuela, berak orduan esan zidan basoa ez zela neskato batentzako lekuri onena eta eskutik hartu eta zela batera jaitsi ginen. Zelaia lorez beterik zegoen, loreak hori kolorekoak ziren, oso handiak eta politak. Bertatik erreka bat pasatzen zen, eta han zeuden untxiak, txoriak eta animalia pila bat ura edaten.

Gu ere ura edan ondoren, zelaiko lorategirantz abiatu ginen eta han zelaia erdian, lore potolo eta polit haien artean, emakumeak labana batekin lore batzuk ebaki eta ohe bat egin zidan.

- Begira zuk egin lo hemen eta deskantsatu. - Esan zidan emakumeak. Esnatu nintzenean han zegoen emakumea niri begira.
- Egun on - esan zidan .
- Egun on - erantzun nion.
- Zelan zaude, ondo deskantsatu duzu?
- Bai emakume, oso ondo nago eta asko deskantsatu dut.
- Begira zure etxean zure zain egongo dira eta ni etxera bueltatzeko ordua dela uste dut.

Baietz erantzun nion, eta berak lagundu zidan bide osoan, nire etxea ikusi arte.

Agurtu ginen besarkada eta musu handi batekin eta eskutik heldu eta hauxe esan zidan:

- Begira, zorro hau zuretzako da. Barruan lore bat dago, etxera heltzen zarenean etxeko atean eskegita jarri eta ikusiko duzu zelan lagunduko dizun etxekoekin ez haserretzen gehiago, eta zoriontsu izaten.

Egia esan zidan; egun batean amarekin haserretu ondoren, lorea zegoen lekura begiak itxita jarri nintzen, eta bat-batean emakumearen aurpegia ikusi nuen. Oso alai eta lasai zegoen, eta nire amarekin neukan haserrealdia desagertu zen.

- Begira Sare - esan zion atsoak. Eta bere gona azpitik zorro bat atera zuen.
- Nik ez dut behar zorro hau, eta uste dut zuri on egingo dizula.

Eskerrak eman zizkion Sarek, begiak zabal-zabal eginda eta atsoak besarkada eta musu handi bat eman zion. Atsoa urrundu zen Sareren baserritik. Sare atariko aulkian geratu zen eserita denbora pila bat. Horrelako batean amaren deia entzun zuen eta Sare korrika bere amarengana abiatu zen, pasatutako guztia kontatzera.